6. La Diputación Foral de Bizkaia adoptará las medidas que considere necesarias para comprobar el cumplimiento de los requisitos en materia de prevención de riesgos laborales por parte de la entidad colaboradora.

7. Bizkaiko Foru Aldundiak aipatu betebeharrak guztiz betetzen direla bermatzeko behar diren neurriak

7. La Diputación Foral de Bizkaia podrá reclamar la adopción de las medidas necesarias para garantizar la total

hartzeko eskatu eta araudian aurreikusitako ekintza guztiak egin ahalko ditu.

observancia de las obligaciones señaladas y ejercitar todas las acciones previstas en la normativa.

7.3.- Bizkaiko Foru Aldundiaren betebeharrak eta konpromisoak.

7.3.- Obligaciones y compromisos de la Diputación Foral de Bizkaia

Hitzarmen honen ondorioetarako, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiko Sailak, honako konpromisoak hartzen ditu:

- 2021eko aurrekontu ekitaldiaren kargura dagokion xedapenean jasotako zenbatekoa ematea, baimendutako aurrekontu kreditua gainditu gabe.
- Hitzartutako zerbitzuan egonaldi baimenei edo ezeztatzeei buruzko ebazpenen jakinarazpena bidaltzea, horrelakorik egonez gero.
- Programaren egikaritzea koordinatzea eta garapenaren jarraipena egitea, albo batera utzita hitzarmenaren Jarraipen Batzordeari buruz adierazitakoa.
- Etengabeko koordinazio- eta elkartze-espazioak ematea, beste zerbitzu batzuekin konexioa, jarraitutasuna eta koordinazioa izate aldera, esku-hartzea integrala, dimentsio aniztuna eta diziplina artekoa izateko eta sarean lan egiteko dinamikarako.
- Entitate laguntzaileak horri eragiten dioten prozesuen diseinuan aktiboki parte hartzen laguntzea.

A los efectos establecidos en el presente Convenio el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a:

- Aportar con cargo al ejercicio presupuestario 2021 la cantidad señalada en la estipulación correspondiente, que no superará el crédito presupuestario autorizado.
- Remitir notificación de cada una de las resoluciones de autorización o cancelación de estancia en el servicio convenido que, en su caso, puedan dictarse.
- Coordinar la ejecución del programa y realizar el seguimiento de su evolución, sin perjuicio de lo señalado respecto de la comisión de seguimiento del convenio.
- Facilitar espacios de encuentro y coordinación permanente de cara a la conexión, continuidad y coordinación con otros servicios, en una dinámica de trabajo en red e intervención integral, multidimensional e interdisciplinar.
- Facilitar la participación activa de la entidad colaboradora en el diseño de los procesos que le afecten.

Zortzigarrena.- Alderdiek beren gain hartutako betebehar eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak

Octava.- Consecuencias por incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes

Erakunde kolaboratzailearen jardunean ez betetzeak hautemanez gero, kontratu hau suntsiaraz daiteke hamalaugarren klausulan aurrez ikusitako ondoreekin. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak

Los incumplimientos detectados en la actuación de la entidad colaboradora podrán dar lugar a la resolución del presente convenio, con los efectos previstos en su cláusula decimocuarta, así

zehatzeko ahalmena erabili ahalko du, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen VII. tituluko II. kapituluaren arabera, eta, era berean, hitzarmenaren xedeak betetzeko erabili ez diren kopuruak itzultzeko prozedura hasi ahalko du.

como al ejercicio, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, de la potestad sancionadora de conformidad con el Capítulo II del Título VII de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, así como el inicio del procedimiento de reintegro de cantidades no destinadas al cumplimiento de los fines del convenio.

## Bederatzigarrena.- Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta hartutako konpromisoei aplikatzekoak

## Novena.- Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos

### 9.1.- Jarraipen eta Kontrolerako Batzordea

### 9.1.- Comisión de Seguimiento y Control

Baliabidearen funtzionamenduaren jarraipena egiteko, eta Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta erakunde laguntzailearen artean koordinazioa errazteko, batzorde tekniko bat eratuko da, eta esku hartzen duen alde bakoitzeko bi ordezkarik osatuko dute.

Con el fin de realizar un seguimiento del funcionamiento del dispositivo, así como de facilitar la coordinación entre el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad y la entidad colaboradora, se constituye una comisión técnica que está integrada por dos representantes de cada una de las partes intervinientes.

Gizarteratzeko Zerbitzuan balorazio eta orientazio eskumenak dituen ataleko buruzagitza eta atal horretako teknikari arduraduna egongo dira. Batzordeko presidentetza atal horretako buruzagitzak izango du.

En el caso del Servicio para Inclusión estará integrada por la Jefatura de la sección competente en materia de valoración y orientación y por la responsable técnica de la misma sección. La presidencia de la comisión corresponderá a la jefatura de dicha sección.

Jarraipen Batzordea hiru hilean behin batuko da, aurretik Gizarteratze Zerbitzuak deialdia egingo duelarik eta hitzarmenari buruzko akordioak bertaratuen gehiengoarekin erabakiko dira; berdinketak egonez gero, presidenteak kalitate bozka izango du.

La comisión de seguimiento se reunirá con una periodicidad trimestral, previa convocatoria realizada al efecto desde el Servicio para la Inclusión, adoptándose los acuerdos que afecten al convenio por mayoría de las personas asistentes; en caso de empate, el presidente contará con voto de calidad.

Bizkaiko Foru Aldundiak egindako finantza ekarpenen jarraipena Gizarteratze Zerbitzuak egingo du, horren zazpigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat eginez, eta batzordeak, jarraipen hori egiteko agindua eman ahal izango die zerbitzuaren teknikariei.

El seguimiento de las aportaciones financieras realizadas por la Diputación Foral de Bizkaia corresponderá al Servicio para la Inclusión, de conformidad con lo señalado en la estipulación séptima del mismo, pudiendo delegar la comisión la realización de dicho seguimiento en el personal técnico del Servicio.

Batzordeko bilerei buruzko aktak Gizarteratze Zerbitzuko ordezkariek idatzi beharko dituzte.

La redacción de las actas relativas a las reuniones de la comisión corresponderá a las personas representantes del Servicio para la Inclusión.

Halaber, eginiko jarduketak egiaztatzeko akta egiteko ardura izango du Gizarteratze Zerbitzuak hitzarmena bukatzen denean.

El Servicio para la Inclusión se responsabilizará de la elaboración de la pertinente acta de comprobación de las actuaciones acordadas, a la finalización de la vigencia del convenio.

### 9.2.- Alderdi bakoitzak egin beharreko jarduketak justifikatzeko eta kontrolatzeko epea eta modua

### 9.2.- Plazo y forma de justificación y control de las actuaciones a realizar por cada una de las partes

#### Gastuen justifikazioa

#### Justificación de gastos.

Erakundeak, modu egokian justifikatu beharko du foru funtsen erabilera; justifikazio hori egiteko, kontu ikuskariak egindako txosten bat aurkeztuko da. Ikuskari hori Kontuen Ikuskarien Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko da, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuaren menpekoa dena, gehienez ere **2022ko maiatzaren 31ko** epean, eta, gainera, erregistro orokorrean edo Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregistro eskuordetu batean ere inskribatuta egon beharko da.

La entidad deberá justificar adecuadamente el destino dado a los fondos forales; dicha justificación se realizará mediante la presentación de un informe de persona auditora de cuentas inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditorías de Cuentas, en el plazo máximo del **31 de mayo de 2022** en el registro general o cualquier registro delegado del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

Txostenak honako dokumentazio hau jaso beharko du:

El informe deberá tener la siguiente documentación:

a) Hitzarmena betetzen dela frogatzen duen jarduketa-memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adieraziz.

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento del convenio, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Egindako jardueren kostua frogatzen duen memoria ekonomikoa. Honakoak jasoko dira bertan:

b.1. Jarduerari egotzitako diru-sarreren eta gastuen egoera.

b.2. Aurreko puntuko gastuen egoera osatzen duten partida bakoitzeko, jardueraren gastuen zerrenda sailkatu bat, hartzekoduna, agiria,

b) Una memoria económica justificativa de los costes de las actividades realizadas, que contendrá:

b.1. Un estado de gastos e ingresos imputados a la actividad.

b.2. Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos del punto anterior, una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación del

zenbatekoa, bidalketa data eta ordainketa zehaztuz.

b.3. Aurreko b.1 atalean aipatutako zerrendan jasotako kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko irizpideak.

b.4 Aurreko b.1 puntuko diru-sarreren egoera osatzen duten partida bakoitzeko jarduera finantzatu duten laguntza, diru-sarrera edo baliabideen zerrenda, jatorria eta zenbatekoa adieraziz.

b.5 Erabili gabeko soberakinik badago, diru kopuru hori eta sortu dituen korrituak itzultzeko ordainketa-gutuna.

acreedor, del documento, su importe, fecha de emisión y pago.

b.3. Criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b.1 anterior.

b.4. Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos del punto b.1 anterior, una relación de las ayudas, ingresos o recursos que hayan financiado la actividad, con indicación de su importe y procedencia.

b.5. En su caso, la carta de pago de reintegro, en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.

Hitzarmen honen **III. ERANSKIN** gisa erantsi da Ogasun eta Finantza Sailak egindako gomendioen dokumentua; bertan, kontu-auditoretza egin duen pertsonaren justifikazio-kontuaren egiaztapen- eta berrikuspen-txostenaren irismena eta edukia jaso da, bai eta justifikazio-kontuaren eredu bat.

Se adjunta como **ANEXO III** al presente convenio documento de recomendaciones elaborado por el Departamento de Hacienda y Finanzas en relación con el alcance y contenido del informe de revisión y verificación de la cuenta justificativa a emitir por la persona auditora de cuentas, así como un modelo de cuenta justificativa.

## Hamargarrena.- Datu pertsonalak

Hitzarmen honetan datuen babesari buruz aplikatu beharreko araubidea Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB araubidea da, pertsona fisikoak datu pertsonalen babesari dagokionez babesteari buruzkoa, eta, horrez gain, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta I. ERANSKIN gisa gehitutako hitzarmen honen datuak babesteko alorrari buruzko dokumentazio juridikoa ere bete beharko dira. Dokumentazio horretan, hitzarmen honen datu pertsonalak tratatzeko Zuzendaritza Nagusi Arduraduna identifikatzen da.

## Décima.- Datos de carácter personal

La normativa aplicable al presente Convenio en materia de protección de datos es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, y la Documentación jurídica en materia de protección de datos del presente Convenio que se acompaña como ANEXO I. En esta documentación se identifica la Dirección General Responsable de tratamientos de datos personales para este Convenio.

## Hamaikagarrena.- Indarraldia

## Undécima.- Vigencia

Hitzarmen honen **indarraldia 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artekoa** izango da, baina, epe hori bukatu aurretik eta betiere dagokion ekitaldirako aurrekontu kontsignazioa egonez gero, bi alderdiak ados baldin badaude, hitzarmena **luzatzea** erabaki **ahal** izango da. Luzapenak epe berekoa edo laburragoa izan beharko du, gehienez ere luzapen **bat (1)** egitea posible izango delarik.

El presente convenio tendrá una **vigencia** que abarca el periodo comprendido entre el **1 de enero y el 31 de diciembre de 2021**, si bien, antes de la finalización del plazo previsto y siempre y cuando exista la correspondiente consignación presupuestaria para el ejercicio de que se trate, **podrá** acordarse, de mutuo acuerdo, la **prórroga** del mismo por un periodo igual o inferior, siendo **una (1)** el número máximo de prórrogas.

Hala ere, hitzarmenaren indarraldia bukatu ondoren, hitzartutako zerbitzuan arreta jasotzen duten pertsonei dagokienez, hitzarmenaren xedea den zerbitzuari eutsi ahal izango zaio indarraldia bukatu eta hurrengo hamar (10) hilabeteetan, pertsona horiek baliabide edo zerbitzu egoki batera eramatea errazte aldera. Denbora tarte horretan hitzarmen honen klausulek indarrean jarraituko dute, baina soilik betetako plazei dagokienez.

No obstante lo anterior, finalizada la vigencia del convenio, respecto a las personas que estuvieran siendo atendidas en el servicio convenido podrá mantenerse el servicio que constituye el objeto del convenio durante los diez (10) meses siguientes a la finalización de su vigencia, con la finalidad de facilitar el traslado de dichas personas a un centro adecuado. Durante dicho periodo de tiempo se mantendrán vigentes las estipulaciones del convenio, pero solo respecto de las plazas ocupadas efectivamente.

**Hamabigarrena.- Hitzarmenaren prezioa**

**Duodécima.- Precio del convenio**

**Prezioa eta ordainketa.**

**Precio y pago.**

Hitzarmenaren prezioa, gehienez, **180.178,68 eurokoa (BEZa kanpo)** izango da , honako aurrekontu partidaren kargura:

El precio del convenio ascenderá a un máximo de **180.178,68 euros, IVA no incluido**, con cargo a la partida presupuestaria siguiente:

**0903/231110/23708, PEP 2019/0065**

**0903/231110/23708, PEP 2019/0065**

Ordainketa mugaeguneratutako hilekoen bidez gauzatuko da, aldez aurretik ordainketa (faktura) justifikatzeko dokumentuak (bertan hileko kostu osoa azalduko da) aurkeztu ondoren. Ordainketa honako zenbateko hauen arabera egingo da:

- **15.014,89 euro, BEZa kanpo.**

El pago se efectuará por mensualidades vencidas, previa presentación de los correspondientes documentos justificativos de pago (facturas), en los cuales constará el coste global del mes y que se corresponderá con el importe siguiente:

- **15.014,89 euros, IVA no incluido.**

Hitzarmena egikaritzeari egotz dakizkiokeen gastutzat joko dira, indarreko araudiarekin bat behar bezala justifikatuak

Se considerarán gastos imputables derivados de la ejecución del convenio, aquellos que, siendo correctamente

daudenak eta hitzarmena likidatzean ordainduak daudenak, betiere, beharrezkoak badira eta zalantzarik gabe izaerari eta hitzarmenaren xedearen ohiko garapenari erantzuten badizkiote.

justificados de conformidad con la normativa en vigor, estén pagados a la fecha de liquidación del convenio, sean necesarios y respondan de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del objeto del convenio.

II. ERANSKIN gisa, hitzartutako zerbitzuari lotutako gastuen eta diru-sarreren aurrekontua atxiki da.

Se adjunta como ANEXO II el presupuesto de gastos e ingresos vinculados al servicio convenido.

### Zuzkidura ekonomiko nahikoa izatea.

### Suficiencia de la dotación económica.

Lankidetza hitzarmenerako erreserbatutako hornidura ekonomikoa halaxe ezarri da indarrean dagoen Bizkaiko Gizarte Esku Hartzeko Sektoreko hitzarmen kolektiboko lan baldintzak betetzeko nahikoa dela aurreikusi delako.

La dotación económica reservada para el convenio de colaboración se ha establecido bajo la premisa de su suficiencia para garantizar el cumplimiento de las condiciones laborales del Convenio Colectivo del Sector Intervención Social de Bizkaia vigente.

Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko baldintzak betetzea zainduko du, eta, bereziki, baldintza ekonomikoei dagokienez, batez ere soldata/ordua parametroari erreparatuko dio, zerbitzua emango duen entitateak aplikatuko duen soldata/ordu erreala parametroarekin eta erreserba ekonomikoa egiteko aurreikusitako soldata/ordua parametroarekin alderatuz.

La Diputación Foral de Bizkaia velará por el cumplimiento de las anteriores condiciones y, en particular, con relación a las económicas, atenderá fundamentalmente al parámetro salario/hora, comparando el salario/hora real aplicado por la entidad prestadora y el salario/hora contemplado para realizar la reserva económica.

Aurrekoaren ondorioetarako, erakunde kolaboratzaileak Bizkaiko Foru Aldundiak eskatutako informazio oro eman beharko du, langileei aplikatuko zaizkien lan baldintzei dagokienez.

A efectos de lo anterior, la entidad colaboradora deberá facilitar cuanta información le sea requerida por la Diputación Foral de Bizkaia sobre las condiciones de trabajo que apliquen a su personal.

### Baldintza etengarria

### Condición suspensiva

Hala ere, eta 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, jasota geratzen da hitzarmen honen eraginkortasuna dagokion ekitaldian hitzarmenaren ondorioz sortutako eta hitzarmenetik eratorritako betebehar ekonomikoak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende geratzen dela.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 56, del Decreto Foral Normativo 5/2013, se hace constar que la efectividad de este convenio queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones económicas derivadas del mismo en el ejercicio correspondiente.

### Hamairugarrena.- Hitzarmena azkentzea

### Decimotercera.- Extinción del convenio

13.1.- Hitzarmen hau azkenduko da edo bere xede diren jarduketak betetzean edo suntsiarazteko arrazoiak gertatzean.

13.1.- El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.

13.2.- Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoi dira:

- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.
- Alderdi guztien ahobatezko erabakia.
- Erakunde laguntzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak ez betetzea, bat-batean gertatu arren.
- Agiri honetan zehaztutako eta alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea, justifikaturiko ez betetzea gertatzen denean izan ezik (hori behar bezala egiaztatu behar da eta hala ulertu beharra dago, Jarraipen Batzordearen beren beregiko erabakiaren bidez dagokion klausulan ezarria). Gainera, hitzarmena desegiten bada, izandako kalte guztien ordaina emateko eta jasotako zerbitzua berrezartzeko betebeharra izango du azkentzea eragin duenak.
- Alderdietako batek hitzarmenari uko egitea. Bi hilabete (2) aurretik jakinarazi behar du.
- Epaileak hitzarmena deuseztatu dela adieraztea.
- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean

13.2.- Serán causas de resolución del presente convenio las siguientes:

- El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El mutuo acuerdo por ambas partes.
- El incumplimiento, aunque sea sobrevenido, por parte de la entidad colaboradora de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidas por alguna de las partes en el presente documento, salvo en el supuesto de incumplimiento justificado que deberá ser debidamente acreditado y apreciado mediante acuerdo expreso de la Comisión de Seguimiento establecida en su cláusula correspondiente, y determinará la obligación por parte del causante de indemnizar todos los daños y perjuicios que se deriven y de restituir las prestaciones recibidas.
- La denuncia del convenio por alguna de las partes, debiendo mediar un preaviso con dos meses (2) de antelación.
- Decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.
- La concurrencia de cualquiera de las causas previstas en la Ley 9/2017,

ezarritako arrazoietako edozein egotea.

de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

## Hamalaugarrena.- Hitzarmenak suntsiaraztearen ondorioak

Hitzarmena desegiteak berekin ekarriko du likidazioak egitea, alde bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak erabakitzeko.

Hitzarmenaren indarraldia bukatzen denean edo xedea guztiz bukatutakoan aurrekontuko gehienezko kopuruan soberakina badago eta, beraz, justifikatutako gastuak aurreikusitako gastua baino baxuagoak badira, erakunde laguntzaileak urteko likidazioa onartu beharko du.

Halaber, likidazioa egindakoan erakundeak egindako jardueren zenbatekoa gauzapen hori finantzatzeko jasotako funtsak baino txikiagoa balitz, dagokion soberakina itzuli beharko lioke.

Hala ere, hitzarmena deuseztatzeko arrazoietako bat dagoenean betearazteko jarduerak badaude, aldeek, hitzarmenaren jarraipen, zaintza eta kontrol batzordeak proposatuta, erabaki ahal izango dute egiten ari diren jarduerekin jarraitzea edo ez, eta egokitzat jotzen dituzten jarduerak gauzatu beharko dituzte. Horretarako, luzatu ezin den epea ezarriko dute, eta hori igarotakoan, jarduerei dagokien likidazioa egin beharko dute aurreko ataletan zehaztutako baldintzetan.

## Decimocuarta.- Efectos de la resolución de los convenios

La resolución de los convenios dará lugar a la liquidación de los mismos con el objeto de determinar las obligaciones y compromisos de cada una de las partes.

En el supuesto de que una vez agotado el plazo de vigencia del convenio o cumplido íntegramente el objeto del mismo, se produzca un remanente sobre la cantidad máxima presupuestada de forma que los gastos justificados sean inferiores a la cantidad prevista, la entidad colaboradora habrá de proceder a la aceptación de la liquidación anual resultante.

Asimismo, si de la liquidación resultara que el importe de las actuaciones ejecutadas por la entidad fuera inferior a los fondos recibidos para financiar dicha ejecución, dicha entidad deberá reintegrar a la Diputación Foral de Bizkaia el exceso que corresponda.

No obstante lo anterior, si cuando concurra cualquiera de las causas de resolución del convenio existen actuaciones en curso de ejecución, las partes, a propuesta de la comisión de seguimiento, vigilancia y control del convenio, podrán acordar la continuación y finalización de las actuaciones en curso que consideren oportunas, estableciendo un plazo improrrogable para su finalización, transcurrido el cual deberá realizarse la liquidación de las mismas en los términos establecidos en los apartados anteriores.

## Hamabosgarrena.- Hitzarmena aldatzeko araubidea

Hitzarmen honen terminoak aldatzeko, alderdiak ados egon beharko dira, eta, horretarako, hitzarmen honetan arautukako Jarraipen Batzordean erabakiak hartu beharko dira.

## Decimoquinta.- Régimen de modificación del convenio.

La modificación de los términos del presente convenio requerirá de mutuo acuerdo de ambas partes, alcanzado dentro del marco de la Comisión de seguimiento regulada en el presente convenio.

## Hamaseigarrena.- Jurisdikzio eskumenduna

Hitzarmen hau administratiboa denez, beronen interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sortzen diren auziak jarraipen batzordeak ebatziko ditu, edo, akordiorik ezean, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuak. Ebazpenak administrazio bidea amaituko du eta beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedatutakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salaren aurrean, beren-beregi uko eginda alderdiei legokiekeen beste edozein foruri. Aurretik esandakoa gorabehera, egokitzat irizten den beste edozein errekurtso aurkeztu ahal zaingo da.

## Decimosexta.- Jurisdicción competente

Dada la naturaleza administrativa del convenio, las cuestiones litigiosas surgidas sobre interpretación, modificación, resolución y efectos de este contrato serán resueltas por la comisión de seguimiento y, en caso de falta de acuerdo, por la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas resoluciones pondrán fin a la vía administrativa y contra las mismas habrá lugar a recurso contencioso-administrativo, conforme a lo dispuesto en la Ley reguladora de dicha Jurisdicción, ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia de Euskadi, con renuncia expresa a cualquier otro fuero que a las partes pudiera corresponder. Sin perjuicio de lo que antecede, podrá ejercitarse cualquier otro recurso que se estime ante la Ley.

## Hamazazpigarrena.- Epeak

Hitzarmen honetan zehar aipatu diren egunak egun naturalak direla ulertuko da, salbu eta lanegun gisa espresuki aipatzen diren kasuak.

## Decimoséptima.- Plazos

Salvo que expresamente se indique su carácter de días hábiles, se entenderá que, los días que se mencionan a lo largo del convenio, son días naturales.

## Hamazortzigarrena.- Hitzarmenaren araubide juridikoa

Hitzarmen hau administratiboa da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluan xedatzen denaren arabera eta bertan xedatutakoari ez ezik, zuzenean edo analogiaz aplika daitezkeen Administrazio Zuzenbideko arauei ere lotu behar zaie eta, bereziki, hauetan xedatutakoari:

- Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte zerbitzuei buruzkoa eta, bereziki, 69. artikuluetan eta hurrengoetan dauden arauak, hitzarmen eta akordioei buruzkoak, baita ere erabiltzaileen eskubide eta betebeharrei eta jarduteko

## Decimoctava.- Régimen jurídico del convenio

El presente convenio tiene naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de derecho administrativo que, directa o por analogía, pudieran resultar de aplicación, y, en particular, por lo dispuesto en:

- La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, y en especial los preceptos contenidos en el artículo 69 y siguientes, relativos a los convenios y acuerdos, así como las disposiciones relativas a los principios generales de actuación y

printzipio orokorrei buruzko xedapenak.

a los derechos y obligaciones de las personas usuarias.

- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroa aratzen duena.

- El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, por el que se regula la cartera de servicios y prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

- Maiatzaren 21eko 59/2019 Dekretua, gizarteratzearen alorrean espezializatutako esku-hartze prozedura arautzen duena.

- El Decreto 59/2019, de 21 de mayo, por el que se regula el procedimiento de intervención especializada en materia de inclusión social.

Hitzarmenaren ekonomia eta aurrekontu araubideari dagokionez, hauetan xedatutakoa aplikatuko da:

Resulta aplicable, en lo que respecta al régimen económico-presupuestario del convenio, lo dispuesto en:

- Abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesten duena.

- El Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria.

- 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa. Dekretu hori aldatu zuen Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onetsi zuen irailaren 4ko 118/2018 Foru Dekretuak, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duenak.

- El Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, modificado por el Decreto Foral 118/2018, de 4 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

Halaber, erakunde laguntzaileak hauetan jasotako xedapenak bete beharko ditu:

La entidad colaboradora habrá de observar, asimismo, las disposiciones recogidas en:

- 62/2002 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Gizarte zerbitzuen foru erregistroa sortzen duena. Bereziki, 5.3 artikulua bete behar da. Beraren b) atalak erregistro horretan izena emateko exijitzen du, Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmenak egin ahal izateko, salbu eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin beren-beregi adosten bada betekizun hori bete beharretik salbuestea.

- El Decreto Foral 62/2002, de 26 de marzo, por el que se crea el Registro Foral de Servicios Sociales, siendo en particular de obligada observancia el artículo 5.3 en cuyo apartado b) se exige la inscripción en dicho Registro para la suscripción de Convenios con la Diputación Foral de Bizkaia, salvo que expresamente se exceptuase de este requisito por acuerdo de esta Diputación Foral de Bizkaia.

- Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituena; baita hura garatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako araudia ere.

Azkenik, hauek ere aplikatuko dira:

- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapenari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzkoa.
- Otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua, Bizkaiko gardentasunari buruzkoa, zehazki, haren 2. eta 9. artikuluetan xedatutakoa.
- 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunekoa.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datuak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko.
- Uztailaren 13 ko 29/1998 Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea.

Hitzarmen honetan aurrez ikusten ez diren gai guztietan hauek aplikatu beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, eta aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau formalizatu eta sinatzen dute.

- El Decreto 64/2004 de 6 de abril, del Gobierno Vasco, por el que se acuerda la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas, así como en la normativa que, de cara al desarrollo de la misma, se apruebe por la Diputación Foral de Bizkaia.

Por último, será de aplicación:

- La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.
- La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, en particular, lo establecido en los artículos 2 y 9 de la misma.
- La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres
- La Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.
- La Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006 General Presupuestaria, y su Reglamento, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Y en prueba de conformidad, se formaliza y firma el presente convenio.

Azken parte-hartzaileak sinatutako data hartuko da hitzarmen honen eraginkortasun-datatzat

Se establece como fecha de eficacia del presente convenio, aquella en la que hubiera firmado la última persona interviniente en el mismo

Firmado por
PATRICIA BARCENA (R:
G48839856) el día 31/12/2020
con un certificado emitido
por Herritar eta Erakundeen
CA - CA de Ciudadanos y
Entidades (4)

Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2021-01-04
ENPLEGUA,GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD